

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2010eko MAIATZAREN 6an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2010eko maiatzaren 6an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 18.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Gotzon Jauregi Sarasola

Bere ezin etorria azaltzen dute: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea eta Karlos Irazu Muñoa


DAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
  - **2010eko apirilaren 15ean egindako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteari, hau da, TOLOMENDI-ri 2010 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala badagokio.**
- 4. Larraulgo Plan Orokorraren diagnostikoaren onespena, hala bada.**
- 5. Larraulgo ur hornikuntzarako sarearen berrikuntza proiektuaren onspena, lizitazioaren hasiera eta administrazio-baldintza pleguen onspena, hala bada.**
- 6. Fakturak eta ordainketak.**
- 7. Beste batzuk.**
- 8. Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.**

- ▣ 2010 urteko apirilaren 15eko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

12/2010 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 28koa, R.A.E. jaunak, Larraulgo Utseta inguruan egin dituen itxitura lanak kentzea, ebazten duena.

13/2010 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 20koa, 2010 urteko 1. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

14/2010 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 26koa, Larraulgo eskolako irakasleei, eskolaren aldamenen dagoen lur eremua baratza moduan erabailtzeko baimena ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**


#### **TOLOSALDEKO LANDA GARAPEN ELKARTEARI, HAU DA, TOLOMENDI-ri 2010 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO**

Ikusirik 2010eko apirilaren 26an Tolomendi, Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak aurkezturiko idatzia, non 2010 ekitaldiko elkartearen funtzionamendurako gastuei aurre egiteko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 2.139,82 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENGOA.- Tolomendi Landa Garapen Elkarteari 2.139,82 eurotako ekarpena burutzea 2010 ekitaldiko funtzionamendu gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 2010 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea

### LAUGARREN PUNTUA

### **LARRAULGO PLAN OROKORRAREN DIAGNOSTIKOAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Udalak, Herria antolatzeko Plan orokorra idazteko kontratazioaren behin betiko esleipena M.A. Irazabalbeitia, P. Izaskun eta E. Erkizia arkitektoei eman ziola 2010eko otsailaren hemezortzian egindako Udalbatzarrean.

Ikusirik Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 86 eta 90.1.artikuluetan dioena:


#### **86. artikulua: Aldez aurreko azterketak**

*1.Administrazioek eta interesa duten erakunde publikoek azterketak egin ahal izango dituzte, hirigintzako planak idatzi edo arlo horretan egoki diren bestelako egintzak gauzatu aurretik, hirigintzako jarduketa jakin batzuk egitea beharrezkoa eta egokia den antzemateko, jarduketa horien eremua eta ezaugarriak zedarritzeko, udal-izaera duten edo udalaz gaindiko eragina edo interesa duten zehazteko eta jarduketak antolatzeko edo proiektuetan jasotzeko tresna egokiak aurkitzeko.*

*2.Aldez aurreko azterketak onartzearen administrazio-eragina barrukoa izango da, kasuan kasuko planak edo proiektuak prestatzeari begirakoa.*

#### **90. artikulua: Plan orokorra egin eta izapidetzea**

*1.Udalari dagokio plan orokorra egitea. Egitea erabakitzen denean, informazioa eskatuko zaie Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Informazio hori emateko, bi hilabeteko epea egongo da, eta justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera emango da.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, Larraulgo Udalak sustaturiko eta Eba Erkizia, Migel Anjel Irazabalbeitia eta Pedro Izaskun arkitektoek prestatu dutela Larraulgo Plan Orokorraren diagnostikoaren dokumentua.

Gaia azterturik, bertaratuek aho batez, ondorengo

**ERABAKITZEN DUTE:**

**LEHENA:** Larraulgo Udalak Sustaturik eta Eba Erkizia, Migel Anjel Irazabalbeitia eta Pedro Izaskun arkitektoek idatzirako Larraulgo Plan Orokorraren diagnostikoaren dokumentua onestu.

**BIGARRENA:** Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta natu-guneen alorreko eskumenak dituzten organoei informazioa eskatuko zaie, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta natu-guneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Informazio hori emateko, bi hilabeteko epea egongo da, eta justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera emango da.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **LARRAULGO UR HORNIKUNTZARAKO SAREAREN BERRIKUNTZA PROIEKTUAREN ONESPENA, LIZITAZIOAREN HASIERA ETA ADMINISTRAZIO-BALDINTZA PLEGUEN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Ur Hornikuntzarako sarearen berrikuntza proiektua prestatuta dagoela, Gilder ingenieros-ek egina eta Larraulgo Udalak sustatua.


Ikusirik premia larria dagoela Larraulgo Ur hornikuntzarako sarearen berrikuntza lanak egiteko, horretarako dagokion administrazio-baldintza plegua prestatu da.

Ikusirik momentu honetan Larraulgo ur hornikuntzarako sarearen berrikuntza proiektuaren lehen fasea gauzatuko dela, hau da, 2,4 eta 5 atalak, guztira 256.479,84 euro + BEZ-a izango delarik.

Ikusirik aipaturiko obrak esleitzeko prozedura, publizitatea izango duen prozedura negoziatua dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

**ERABAKITZEN DU:**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Gilder Ingenieros-ek idatzitako eta Larraulgo Udalak sustatutako, Larraulgo ur hornikuntzarako sarearen berrikuntza proiektua eta baldintza teknikoen orria onestea.

BIGARRENA: Larraulgo ur hornikuntzarako sarearen berrikuntza proiektuaren lehen fasea, 2,4 eta 5 atalak, arautzen dituen administrazio-baldintza zehatzen agiria onartzea, prozedura negoziatuaz eta publizidadearekin gauzatuko dena.


HIRUGARRENA: 256.479,84 euro +BEZ-a ko gastua onestea.

LAUGARRENA: Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

MANPEL	80,04
FERRETERIA BARBE, S.L.	55,38
KOLDO JAUREGI SARASOLA	248,24
GOIKOETXEA ALBISU S.L.	237,51
KIROLZER	98,40
EBA ERKIZIA BRION	858,47
IZFE	519,68
KIROLZER	98,40
KOLDO JAUREGI SARASOLA	395,56
ULAHÍ	778,39
BELARMENDI	184,44
MEGA	66,56
GARAJE EGIN	256,52
TELEFONICA	17,66
TELEFONICA	82,02
TELEFONICA	87,81
TELEFONICA	20,35
IBERDROLA	164,26
IBERDROLA	43,67
IBERDROLA	79,90
IBERDROLA	145,95
IBERDROLA	32,41
IBERDROLA	21,67
IBERDROLA	128,85
IBERDROLA	430,62
IBERDROLA	160,50
EUSKALTEL	189,21



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

### ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **5.482,47** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

#### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

#### **HAMABOSTGARREN PUNTUA**

#### **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Adela Mendiola zinegotziak batzarkideei jakinarazten die, Gipuzkoako Foru Aldundiak ateratzen dituen haur, nerabeei....diru-laguntzak, aurten Aldundiarekin hitzarmena sinaturik ez duten herriei ez dietela emango, eta Aiztondo Mankomunitatea osatzen duten herriak ez dutela hitzarmen hori sinatua eta gainera momentu honetan ezin dela sinatu jakinarazi diote kultura dinamizatzaileari. Horregatik, Aiztondo Mankomunitateko dinamizatzaile kulturalak, aipaturiko hitzarmena eta gaiari buruzko beharrezko informazioa eskatzeko dagozkion izapideak egingo dituela jakinarazi zaie batzarkideei.

*Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 19.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA